

Beste behin ere, ekainaren 28 honetan, Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, eskuin muturra bere boterea mundu osoan zabaltzen ari den honetan, azpimarratu nahi dugu behar-beharrezkoa dela gurean ere LGBTIAQ+ Lege Integral propio bat izatea.

Ez da eskari kapritxoso bat. Egiazko beharra da. Bien bitartean, Estatuko gaineko erkidegoetan, urteak daramatzate antzeko legeekin. Bi salbuespen daude bakarrik: batetik, Asturias, lege-proiektua lantzen ari baitira orain; eta, bestetik, Gaztela eta Leon: agintean dagoen eskuin muturrak lege-proiektua baztertu egin baitu. Beste lurralde batzuetan, Katalunian esaterako, dagoeneko legea berritzen ari dira, eguneratu eta hobetzeko.

Izango da galdetuko duenik zergatik ez garen konformatzen 2023ko martxoaz geroztik indarrean dagoen Trans Legearekin. Erantzuna erraza da. Aterki orokor bat delako, edukietan mugatuta geratu zena. Izan ere, ez ditu aintzat hartzen pertsona intersexualak, ez-bitarrak edo estrabitarrak, asexualak, migratzaileak edo egoera administratibo irregularrean daudenak, besteak beste.

Euskal lege integral bat exijitzen dugu, gure eguneroko bizitzan eragina duten arlo guztietan neurri zehatzak xehetasunez bilduko dituen, baliabide zehatzekin, egutegi konkretu batekin eta botere politikoa gainbegiratzeko kontrol independentearekin.

Eskuin muturreko indarrek (Vox eta Alderdi Popularra barne) dagoeneko iragarri dute agintera iritsiz gero, auzitan jartzen duten Lege Integral hori indargabetuko dutela.

Eusko Legebiltzarraren egungo osaerak dagoeneko posible egingo luke Euskal LGTBI+ Lege Integrala onestea, ezkerreko alderdi gehienen hauteskunde-programetan jasota baitzegoen. Gainera, aurten Euskal Trans Legearen bigarren erreforma ere onetsi da. 3

Guztiok babestuko gaituen lege bat nahi dugu, beti ahaztuta geratzen diren pertsonak barne hartuko dituen: transak, intersexualak, asexualak, arromantikoak, ez-bitarrak, queer-ak... Gure orientazioa, sexua eta genero-identitate eta adierazpenak desmedikalizatu eta despatologizatuko dituen lege bat.

Harrotasunaren Egun honetan, kaleetara eta plazetara irten gara ultraeskuindarren errepresioaren eta gorroto-diskurtsoen aurka manifestatzera. Stonewalleko matxinaden oroimena ohoratzen dugu, baita borroka hura gidatu zuten emakume trans beltz eta latino ausartak ere.

Pertsona guztientzat askotarikoa, inklusiboa eta bidezkoa izango den gizarte baten alde borrokatzen dugu, bazterketarik eta apropiaziorik gabe. Gora LGBTIQA+ harrotasuna!